

STARTINNOVA

CEO3

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Lehenik eta behin, gure bezeroekin harremana ahalik eta hoberen mantentzen saiatuko gara (produktuak zehaztutako epean bidali, errespetuz hitz egin, haien proposamenak kontuan hartu, arazo bat izanez gero ahalik eta azkarren laguntzea, prezio egokiak mantendu...). Bestalde, autonomiaz jokatu dugu, langileak elkarlanean ibiliko gara, gure proiektuaren helburua ondo definitua izanik. Gainera, konfiantza, segurtasuna eta gure proiektuaren gaineko kontrola beharrezkoak izango dira.

Honez gain, gure langileen arteko harremana hobetzeko eta konfiantzan lan egin ahal izateko, seihileko bakoitzean lankide guztiekin afari berezi bat prestatuko dugu.

Negozio-ereduak funtziona dezan, honako hau egin beharko genuke (funtsezko jarduerak):

Funtsean, hauek dira:

1. **Ekoizpena:** Ekoizpenak gure produktua sortzean datza, hau da, fundak produzitzea. Langile bakoitzak bere postua izango du eta ondo antolatuta egon beharko du. Hala ez bada, izango dugun begiraleak informazioa jaso eta guri pasatuko liguke. Guk ondoren, neurriak hartuko genituzke.
2. **Arazoak konpontzea:** Lana gainbegiratu ondoren, langileen arteko arazoak egonez gero, orientatzaile bat edukiko dugu hauek konpontzeko eta horrela ekoizpenean oztopoak saihesteko. Bezeroen kasuan, arazorik sortuz gero gure produktuarekin, arreta zerbitzuarekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute erosleek 24 orduz.
3. **Plataforma edo Sareko jarduerak:** Gure webgunean hainbat jarduera egingo ditugu, haien artean, zozketak, promozio berriak iragarki eta informazio gehigarria eman.

Jarduera batzuk kanpoko enpresen esku utz daitezke, eta beste batzuk ez. Ezin daiteke besteen esku utzi know how (ezagutza) delakoarekin lotutako guztia.

Gure produktua gure denda fisikoetan salduko ez denez (denda bakar batean bakarrik: egoitz nagusian), beste enpresa batzuei utziko diegu salmenta horren lana egiten.

Hortarako, haiekin harremanetan egongo gara, hori bai, ondo ezagutu eta aztertu ondoren enpresa hura. Esaterako, Nike, Hawaii Donostia, Pull and Bear...

